

GIZARTE ZIENTZIAK

3. GAIA: ELKARREKIN BIZITZEKO ANTOLATZEN GARA

GLOSARIOA ETA LURRALDE ANTOLAERA

GLOSARIOA

Euskaraz	Gaztelaniaz	Euskaraz	Gaztelaniaz
Udala	Ayuntamiento (erakundea)	Herria/Hiria	Localidad
Udalerria	Municipio	Erakundea	Organización/Institución
Kudeaketa/Kudeatzea	Gestión(ar)	Bozketa	Votación
Zinegotzia	Concejal/a	Alkatea	Alcalde/sa
Udal hauteskundeak	Elecciones municipales	Udalbatza	Corporación/Pleno municipal
Gai zerrenda	Orden del día	Aurrekontua	Presupuesto
Bertaratu	Acudir	Edateko ura	Agua potable
Estolderia	Alcantarillado	Argiztatu	Iluminar
Kultura zerbitzuak	Servicios culturales	Kultura Etxea	Centro/Casa de cultura
Arautu	Regular/Reglamentar	Larrialdi zerbitzuak	Servicios de emergencias
Gizarte zerbitzuak	Servicios sociales	Osasungintza	Sanidad
Eskubideak	Derechos	Betebeharrak	Deberes
Askatasuna	Libertad	Justizia Auzitegi (Gorena)	Tribunal (Superior de Justicia)
Estatuburua	Jefe del Estado	Epailea	Juez/a
Kideak	Miembros	Diputatua	Diputado/a
Senataria	Senador/a	Alderdi politikoak	Partidos políticos
Ordezkarria	Representante	Hautatu	Elegir
Lurraldea	Territorio	Udal barrutia	Término municipal
Probintzia	Provincia	Hiriburua	Capital
Diputazioa	Diputación	Autonomia erkidegoa	Comunidad autónoma
Hiri autonomoa	Ciudad autónoma	Probintzia bakarreko erkidegoa	Comunidad uniprovincial
Probintzia anitzeko erkidegoa	Comunidad pluriprovincial	Autonomia estatutua	Estatuto de autonomía
Europar Batasuna	Unión Europea	Europako Batzordea	Comisión Europea
Ongizatea	Bienestar	Eurogunea	Zona euro
Merkatu bakarra	Mercado único	Schengen Eremua	Espacio Schengen
Ikurra	Símbolo	Herraldea	País
Herritarra	Ciudadano/a		

ESPAINIAKO AUTONOMIA ERKIDEGOAK (eta HIRI AUTONOMOAK)

Autonomia Erkidegoak			
Euskal Autonomia Erkidegoa	País Vasco/Euskadi	Nafarroako Foru Erkidegoa	Comunidad Foral de Navarra
Galizia	Galicia	Asturiasko Printzerria	Principado de Asturias
Kantabria	Cantabria	Errioxa	La Rioja
Aragoi	Aragón	Katalunia	Cataluña
Valentziako Erkidegoa	Comunidad Valenciana	Murtzia	Murcia
Madrilgo Erkidegoa	Comunidad de Madrid	Gaztela eta Leon	Castilla y León
Gaztela-Mantxa	Castilla-La Mancha	Andaluzia	Andalucía
Extremadura	Extremadura	Balear Uharteak / Balearrak	Islas Baleares
Kanariak	Canarias		
Hiri autonomoak / Ciudades autónomas			
Ceuta	Ceuta	Melilla	Melilla

UDALERRIAREN ANTOLAERA

- **Udala** udalerrri bat gobernatzeaz arduratzen da. Alkateak eta zinegotziek osatzen dute **udalbatza**, eta (**osoko**) **bilkuretan** batzen dira.
- Osoko bilkurek honako ezaugarri hauek dituzte:
 - Udaletxean egiten dira.
 - Alkateak erabakitzen du zein den gai zerrenda.
 - Bozketa bidez hartzen dira erabakiak, eta publikoak dira.
 - Bertan onartzen dira udalerriko aurrekontuak (nola banatu gastuak; udal zerbitzuak eskaintzeko, gehienbat).
- **Udal zerbitzuak** honako hauek dira:
 - Edateko ura banatzea eta estolderiaren mantentze lanak egitea.
 - Gizarte zerbitzuak; esaterako, osasungintza.
 - Bide publikoak argizatzea.
 - Kultura zerbitzuak (hezkuntza, museoak, kultura etxeak...).
 - Garraio publikoa. Kaleak garbitzea.
 - Larrialdi zerbitzuak (anbulantziak, suhiltzaileak...). Trafikoa arautzea.

ESPAINIAREN ANTOLAKETA POLITIKOA

- Espainiako legerik garrantzitsuena 1978ko Konstituzioa da, bertan arautzen baitira botere-antolaketa eta banaketa, oinarrizko eskubide eta betebeharrak eta politikarako oinarrizko prozedurak. Haren arabera, denok gara berdinak legearen aurrean.
- Estatuko erakundeak honako hauek dira:
 - Erregea (Filipe VI.a)

Parlamentua (diputatuak eta senatariak)

Gobernua (presidentea eta ministroak)

Justizia (epaileak)

- Gure ordezkariak (parlamentariak) hautatzeko, alderdi politikoak lau urtean behin aurkezten dira hauteskundeetara.

Espainiaren lurralde antolaketa

Biztanlegunea/Herria/Hiria → Udalerria → Probintzia → Autonomia erkidegoa

Espainiako kultura aberastasuna

- Estatuko hizkuntza ofiziala **gaztelania** da. Horrez gain, beste hizkuntza ofizial batzuk ere badaude, zein bere autonomia erkidegoan:
 - **euskara** (EAEn eta Nafarroan)
 - **galiziera** edo **galegoa**(Galizian)
 - **katalana** (Katalunian eta Balearretan; Katalunian, Aran haranean erabiltzen den aranera hizkuntza –okzitanieraren dialekto bat– ere ofiziala da) eta **valentziera** (katalanera eta valentziera hizkuntza bera da; valentziera esaten diote Valentziako Erkidegoan).
- **Tradizioak**: gastronomia, dantzak eta abestiak.
- **Jaiak**: Aste Nagusia (Bilbo), Danborrada (Donostia), Andre Maria Zuriaren eguna (Gasteiz), San Blas eguna (Abadiño)...

Espainia Europar Batasunean

- Europar Batasuna Europako 28 herrialdek osatzen dute, eta haietako bat Espainia da (Erresuma Batua, Brexitarekin, Europar Batasunetik irteteko zorian dago; beraz, 27 herrialdek osatzen dute gaur egun).
- Europar Batasuneko erakundeak: Europako Parlamentua, Europako Kontseilua eta Europako Batzordea.
- Herritarren ongizatea lortzeko, EBk zenbait neurri ezarri ditu: moneta bakarra (euroa), merkatu bakarra, Schengen Eremua (europarrok pasaporterik gabe ibiltzeko herrialde batetik bestera), eta Estatu guztien arteko aberastasunaren banaketa.